

2. BALIO PROPOSAMENA

Proposatuko duguna musika denez, euskal Punk-Oi! inguruko musika batez ere, behar musikala edo kulturala asetzeko gai izango gara, lehenik eta behin, nazionalki, baina posible den bitartean gure taldeak maila internacionalera eramatea helburu garrantzitsua litzateke.

Bereizten gaituena, talde berri eta iraungitako taldeak bilatuko ditugula da, gure historia kulturala eta etorkizun kulturala sustatzeko. Adibide batzuk erakusteko asmoz, talde berriei begiratzuz aurki ditzakegunak hauek dira: Kolpeka, Tatxers, Oldarkor, Mehatxuka, Indabe...; ordea, iraungitako taldeak esaterakoan talde hauen inguruan ari gara hitz egiten: La Polla Records, Berri Txarrak, Piperrak, Barricada, Kortatu, Negu Gorriak, Su Ta Gar, eta bestelako talde zahar.

Beraz, bereizgarria kualitatiboa izango da, jendeak gu egiten ari garenarengatik jarraituko gaituelako, ez egiten duguna ugaria delako. Hala ere, talde asko batzen eta kontzertu askotan parte hartzen saiatuko gara gure entzuleek gure taldeen aktibotasuna ikus dezaten eta sentitu dezaten.

Bestalde, bezeroei eskeinitako produktuak kontzertuetarako sarrerak, musika taldeen merchana(musika digitala, KD-ak, Biniloak, Kaseteak, Flexi Diskak, kamisetak, jertseak, sudaderak, prakak, karterak, bufandak, banderak eta bestelako salgai ezberdinak), eta gure antzokian saldu ditzakegun edozein kontsumigai izan daitezke, edozein motako edariak(alcoholodunak, alcoholgabeak, errefreskoak, etab.).

Horrenbestez, produktu baten prezioa ez da inoiz 40 eurotik igoko, gainera prezioa igotzen bada jertseak edo sarrera garrantzitsuak izango dira bakarrik. Horregatik, gehien salduko ditugun produktuak, hau da, edariak eta 10 euro inguruko sarreak izango baitira.

Beraz, 10 euroren inguruan egongo dira gure produktu gehienak, hala nola, arropa eta bestelako jarteko produktuak beti 10 euro inguruan egongo dira(sudaderak edo jertseak alde batera utzita), edariak ez dute inoiz 10 euro baino askoz gehiago balioko eta sarrerak lehen esan bezala, kantitate horren inguruan ibiliko dira.



